

Berritu ezazu



“JUAN TORRES”
Enpresa-ideia eta
-proiektu berritzaileak
LEHIAKETA

Berritu ezazu

1	HITZAURREA	3
2	“IDEIA BERRITZAILEAK ETA SORTZAILEAK” MODALITATEA.....	3
2.1	NORENTZAT.....	3
2.2	PROPOSAMENEN EDUKIA	3
2.3	NOIZ ETA NON AURKEZTU	4
2.4	ESKAKIZUNAK.....	4
2.5	SARIAK.....	4
2.6	BALORAZIO-BATZORDEA.....	4
2.7	JABETZA INTELEKTUALA.....	5
2.8	ERABAKIA	5

Berritu ezazu

1 HITZAURREA

Ezagutzan oinarrituriko egungo testuinguru sozioekonomikoan gizarte-ehun sortzailea sortzea -ezagutza berria sortuko duena – garrantzi handiko balio erantsia da sormen hori duten pertsonen eta komunitateen garapenerako. Arazoei era askotako konponbideak emateko gisa-gaitasuna da sormena. Gizaki guztiok berez, jaiotzatik, daukagu sortzeko gaitasuna, sormena ez baita bakar batzuen dohaina: musikariena, pintoreena, idazleena, artistena,... Sormena garatuz, arrazoitzeko, gauzak zalantzan jartzeko eta eguneroko arazoentzat konponbide berritzaileak bilatzeko ahalmena geureganatzen dugu gizakiok.

Gazteen artean sormenezko pentsaera sustatzea da, hain zuzen, lehiaketaren modalitate honen helburua. Horrela, gure gizartea anitza izango da, eta ezagutza-gune berriak sortuko ditu etengabe, halaxe gertatzen baita gizarte dinamiko aurreratu orotan. Sormenak hazten eta trebatzen laguntzen die gazteei. Izan ere, sormena landuz, beraien kasa pentsatzen ikasten dute, besteen pentsamenduak berraienganatu soilik egin gabe. Gure lehiaketak norbere pentsamendua sustatzea du helburu.

Ermuko Udalaren Toki Garapeneko Alorrak **ENPRESA IDEIA ETA PROIEKTU BERRITZAILEEN JUAN TORRES LEHIAKETAN** parte hartzeko dei egiten du. Aurreko edizioetan legeztatuaren ere honako modalitateak egongo dira aukeran:

1. Ideia berritzaileak eta sortzaileak

2. Enpresa berritzaile sortu berrien negozio-planak.

Oinarri hauek ondorengo **modalitateari** dagozkio:

2 “IDEIA BERRITZAILEAK ETA SORTZAILEAK”

2.1 Norentzat

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta erdi eta goi mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat.

2.2 Proposamenen edukia

Berritu ezazu

Lehendik dauden objektuentzat erabilera edo aplikazio berri bat proposatuko da, edo bestela, produktu edo prozesu berriak aurkeztuko dira (berdin da merkatuan nolako potentzialtasuna duten). **Sormena sustatu nahi da funtsean, merkatu-aukerak baino gehiago** (adib.: hondakin materialak dekoraziorako, erabilera baliagarriak ontzientzat, sormenezko diseinuak, erabilera berriak makinentzat, etab.)

Proposamenak edozein euskarritan eta formatutan aurkez daitezke: paperean, maketan, ikus-entzunezkoen bidez, etab.

Paperean ez beste formatuetan aurkeztutako proposamenak Lobiano Kultur Gunean egongo dira ikusgai Toki Garapeneko Astean.

ENPRESA - IDEIA ETA -PROIEKTU BERRITZAILEEN “JUAN TORRES” 5. LEHIAKETA

2.3 Noiz eta non aurkeztu

Proposamenak 2010eko apirilaren 21 baino lehen aurkeztuko dira Ermuko Udalaren “Abiapuntu” bulegoan (Komentukua 3). Aurkezpena egokia ez izateagatik proposamena zuzendu behar izanez gero, beste 5 eguneko epea emango da horretarako.

Proposamenetan behar diren datu guztiak adieraziko dira, Udala sustatzaileekin harremanetan jar dadin.

2.4 Eskakizunak

- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasle guztiek hartu dezakete parte lehiaketan.
- b) Bakarka zein taldean egindako proposamenak aurkez daitezke.
- c) Proposamenarekin batera honako oinarriei erantsitako dokumentua aurkeztu beharko da prestakuntza zentroko irakasle batek sinatuta.

2.5 Sariak

Berritu ezazu

Guztira 9.000 euro banatuko dira aukeratutako sarien artean. Lehiaketako atal bakoitzaren xehetasunen arabera, honela banatuko dira sariak:

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak:** 1. saria 2.000 €koa eta 2.a 1.000 €koa.
- **Erdi mailako heziketa zikloetako ikasleak:** 1. saria 2.000 €koa eta 2.a 1.000 €koa.
- **Goi mailako heziketa zikloetako ikasleak:** 1. saria 2.000 €koa eta 2.a 1.000 €koa.

Lehiaketaren irabazleak eta bere ikastetxeak erdibana jasoko dute saria, bakoitzak % 50, eta zenbatekoa saria ematean ordainduko da.

Adingabearen edo ikastetxearen izenean, adin nagusiko ordezkari batek jasoko du saria; bestela, ez da emango. Une horretan adin nagusiko ordezkariak ez dagoelako saria eman gabe geratuz gero, ikastetxeko ordezkariak 15 eguneko epea izango dute Udalarekin harremanetan jarri eta saria jasotzeko.

2.6 Balorazio Batzordea

Balorazio Batzordea Udaleko teknikariak osatuko dute. Proposamenen kalitatea eta horiek bat datozen oinarriekin baloratuko da. Balorazio Batzordeak honako aukeraketa-irizpide hauei jarraituko die:

- Proposamena zenbateraino den originala eta berritzailea (50 puntu).
- Proposamenean jasotako ideia zenbateraino garatu den (25 puntu).
- Aurkeztutako euskarria ongi ikusten den (25 puntu).

ENPRESA-IDEIA ETA -PROIEKTU BERRITZAILEEN “JUAN TORRES” 5. LEHIAKETA

2.7 Jabetza intelektual

Proiektuak eta proiektuen jabetza intelektual sustatzaileenak izango dira. Lehiaketaren antolatzaileek ezingo dira horiez jabetu, eta 2010eko Toki Garapeneko Asteko erakusketarako baizik ez dituzte erabiliko.

Berritu ezazu

2.8 Erabakia

Epaimahaikoen erabakia jendaurreko ekitaldian emango zaie ezagutzera partaideei, Lobiano Kultur Gunean. Horrez gain hedabideetan ere argitaratuko da.

Epaimahaikoek sari guztiak edo batzuk eman gabe utzi ahal izango dituzte proiektu kopuru nahikoa aurkeztu ez bada edo aurkeztutakoek behar beste kalitaterik ez badute. Sariren bat eman gabe geratzen bada epaimahaikoek bi aukera izango dituzte: beste deialdi publiko bat egitea edo kasuan kasuko zenbatekoa beste kategoria bati ematea. Bestalde, saririk gabe geratu arren, kalitate nabarmena izan duten lanen ohorezko aipamena egin dezakete.

Epaimahaikoen erabakia argitaratu eta astebetera egileak lanak jasotzera joan ahal izango dira proposamena aurkeztu zuten tokira. Hilabeteko epea izango dute horretarako, zeren epe hori igarota antolatzaileek ez baitute inolako erantzukizunik izango.

Epaimahaiak lehiaketa honen oinarriak interpretatu eta osatzeko ahalmena izango du. Bere erabakiak behin betikoak izango dira eta ezingo da kontrako errekurtsorik aurkeztu.

Lehiaketan parte hartzeko oinarri hauek eta oinarrien ondoriozko eskubide eta betebeharrak bete-betean onartu behar dira, ezinbestez.

Berritu ezazu

Honakoaren bitartez _____ prestakuntza-
zentroak adierazten du _____ proiektua
Enpresa-idea eta -proiektuen “Juan Torres” 5. Lehiaketara aurkeztu dela, zentro hau
jakinaren gainean eta ados dagoelarik.

Eta horrela ager dadin honako agiri hau sinatu dut.

Izen-abizenak:

Kargua:

Zigilua eta sinadura